

ALFA.EAT

Rakel Giraldo Moran, Iraia Yarritu Marín, Aiora Macicior Marín eta Kevin Krasimirov Bozhilov



FIWI.IT

IDEIA

Etxe guztietan **arazo berdina** dago: erosketak egiten ditugunean **janari asko** erosten dugu, baina ondoren erositako guztia **ez dugu bere epean jaten** eta horregatik janari asko kadukatu egiten zaigu eta ondorioz, **zakarrontzira bota** behar dugu. Hori dela eta, **aplikazio** hau sortu dugu, honako arazo hau ekiditzeko.



Gure **helburua** etxean xahutzen den janariaren zifra murriztea da, hau da gure esku dagoen janaria ez xahutzea, etxean daukagun janariarekin erabilpen ona egitea eta beharrezkoak ez diren gauzak ez erostea. Horretarako gure teknologiarekin zure eskuetan edukiko duzu **informazio** osoa zure janaria aprobetxatzeko eta ez botatzeko. Honekin, etxean xahutzen den janariaren **ehunekoa murriztuko** dugu eta ondorioz guztira xahutzen den janariaren kopurua murriztuko da.

"Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik, urtero, 350.000 tona inguru xahutzen dira: Urtero alferrik galtzen den janariaren % 42 etxeetan xahutuko litzateke. Ekoizpen prozesuetan, berriz, % 39 inguru galduko litzateke, jatetxeetan % 14 eta banaketan % 5. "

Aplikazioaren **erabilera oso erraza** izango da; erosten ditugun produktu guztien kadukatze datak ez ditugulako banan banan sartu beharko. Alde batetik, hozkailu bakoitza **kamara** bat izango duelako atearen barrualdean ipinita eta horrela hozkailuan sartzen ditugun janari bakoitzaren kadukatze data zuzenean irakurriko ditu, guk ezerrez egin gabe eta aldi berean zuzenean informazio hori mobilean gordeko da. Bestalde, barazkien eta fruten kasuan hozkailuaak izango duen **pisuari** esker, gauzak sartzerakoan eta irteterakoan, zuzenean jakingo dugu zenbar pisu txikitu eta gehitu den produktu bakoitzearekin.

Gainera, etxean, lanean edo edozein lekutan egonda, aplikazio honi esker gure hozkailuan dauzkagun janariaren iraunkortasuna ikusteko aukera izango dugu, eta zeoze falta baldi bazaigu aplikazio honek abisatu egingo gaitu. Abisu honi esker, etxera bueltatu baino lehenago supermerkatutik pasatzeko aukera baldin badugu etxean falta zaiguna erosteko aukera izango dugu.

